Vocalia Taldea

In mulieribus

1 **Vocalia Taldea**, *emakume abesbatza*

2 **Basilio Astulez**, *zuzendaria*

3 **Diskoak**

4 **Sariak**

5 **Estreinaldiak**

6 **Programa**, *In mulieribus*

01

Vocalia Taldea
emakume abesbatza

2000. urtean sortu zen **Vocalia Taldea** emakume abesbatza, egungo zuzendari Basilio Astulezen ekimenez. Vocalia Taldeak bidea ematen die Euskal Herriko zenbait musikari gazteren erronka eta kezkei. Taldearen asmoa ahots-talde egonkor eta –musika eta ahots aldetik exijentzia-maila handikoak direlako– ohiko programazioetan nekez entzun daitekeen errepertorio bati ekin diezaiokeen ahots-talde bat sortzea da.

Gaur egun, **Araba, Bizkaia, Gipuzkoa** eta **Nafarroa**ko bataz besteko **30 abeslarik** osatzen dute Vocalia Taldea, den-denak eskarmentu handikoak abesbatza-musikaren alorrean. Programazio ausartak eta eszenaratze zainduak bitarte, taldea erreferente bihurtu da egungo musika koralaren munduan.

Vocalia Taldeak **a cappella musika jorratzen du batez ere, Euskal Herrikoa zein nazioartekoa, eta garai klasikoetatik hasi eta musika garaikideraino**. Horrez gain, XX. eta XXI. mendeetako errepertorioen ikerlan sakona egiten du, eta musika-lan sortu berriekin aberasten du bere errepertorioa, **abangoardiako konpositoreen** ekarpenak lagun; horrek guztiak adierazpen-ahalmena areagotzeko eta berrikuntzari ateak irekitzeko aukera ematen dio taldeari. Konpromiso horri jarraiki, Vocalia Taldeak mundu zabaleko egileei eskatutako hamar bat lan estreinatu ditu, eta lanean dihardu sortzaile ugarirekin.

Hasieratik beretik, Vocalia Taldeak gonbidapen aunitz jaso izan ditu Espainiako eta Europako (Italia, Frantzia, Irlanda, Belgika...) abesbatza-jaialdi ugaritan parte hartzeko. Kritikak txalotu egin du ibilbidean ezaugarri nagusi kalitatea, orijinaltasuna eta berrikuntza dituen taldearen jarduna.

Taldea zenbait orkestra, bakarlari eta kultur erakunderekin batera aritu izan da sarritan, eta **hogei saritik gora jaso izan ditu nazioarteko lehiaketetan**.

www.vocaliataldea.com

info@vocaliataldea.com

#CanaldeVocaliaTaldea

#Vocaliataldea

@Vocaliataldea

Vocalia taldea
abeslariak

1. sopranoak

Zuriñe Alvarez
Idoia García
Amaia Igartua
Katrin Iturralde
Jaurne Gaminde
Iratxe Garai
Adela Olaskoaga
Igone Abio

2. sopranoak

Cristina Saldías
Esti Asurmendi
Leire García
Natalia Marín
María Balda
Idoia Aguirre
Irma Rutkauskaite
Rakel Guridi
Jaione Astulez

1. kontraltoak

Nagore Mtz. Aguirre
Lorena Garro
Elena Madrazo
Marixa Fdz. Monge
Oihane Toledo
Mario Hernández
Rose Rodriguez
Amaia Guridi
Miren Martín

2. kontraltoak

Mertxe Fdz de Bastida
Larraitz Gorriño
Marian Napal
Esther Santamaría
Esther Santamaría
Aitziber Eleta
Audrone Almanaityte

basilioastulez@hotmail.com

649 995 428

facebook.com/basilio.astulezduque

02

Basilio Astulez
zuzendaria

Kantu koraleko irakaslea da Leioako Udal kontserbatorioan, eta bertako zenbait abesbatzen sortzailea: 2001ean Leioa Kantika Korala haur abesbatza, 2005ean La Kantoria nesken abesbatza gaztea, eta 2007an San Juan Abesbatza mistoa. Koru eskola gazte honek 7 eta 25 urte bitarteko 150 abeslaritik gora biltzen ditu, eta sari ugari jaso izan ditu Espainia eta Europako lehiaketetan..

2000. urtean Vocalia Taldea izeneko emakumeen ganbera-abesbatza sortu zuen, zeinak ordutik honako ibilbidean 20 saritik irabazi duen nazioarteko abesbatza-lehiaketa garrantzitsuenetan.

Talde horien buruan, 10 disko grabatu ditu, bai eta nazioarteko zenbait bira egin ere Europa eta Amerikan barrena, zeinetan lehen mailako bakarlari, orkestra, zuzendari eta abesbatzekin lankidetzan aritu izan den.

2008an zuzendari onenaren sari berezia irabazi zuen Goriziako (Italia) 47. C. A. Seguizzi Nazioarteko Lehiaketan, Leioa Kantika Koralaren buruan egindako lanagatik.

2009an ere zuzendari onenaren sari berezia jaso zuen Tourseko (Frantzia) 38. Florilège Vocal lehiaketan, Vocalia Taldearen zuzendaritzagatik.

Gaur egun **koru-zuzendaritzako irakasle** lanetan dihardu hezkuntza-entitate, unibertsitate eta zenbait abesbatza-federazioentzako. Sarritan deitzen dute Europan, Amerikan eta Asiako lehiaketetan epaimahai aritzeko, bai eta ikastaro eta mintegiak emateko ere.

2018tik aurrera, gainera, koru-zuzendaritzako irakaslea da ***Musikene*** Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian.

03
Diskoak
grabaketak

Haizeak dakar

2012ko irailean A**zkoitiko (Gipuzkoa) Santa Kutz komentuan** grabatua.

Diskoak **Xabier Sarasola** konpositore gipuzkoarraren ahots berdinentzako opus korala biltzen du.

Lan oso ezagun eta sarritan abestuak (esaterako Pater Noster eta Ave Maria), baina baita lan konplexuago eta gutxiagotan entzunak (hala nola Goiztirian, Leioa Kantika Koralaren X. urteurrenerako sortua), Izarapean, Xulufraia edo Haizeak dakar bera.

Haizeak dakar piezan Xabier Sarasola bera aritzen da piano-jole laguntzaile.

Maria mater

2010eko urtarrilean Azkoitiko (Gipuzkoa) **Santa Kutz komentuan** grabatua.

NB estudioak ekoitzi zuen **Andre Mariari garai eta estilo desberdinetan eskainitako moteteen sorta** hautatua biltzen du CD honek, tartean J. Brahms, P. Casals, X. Sarasola, J. Busto eta besteren lanak bilduaz.
Laguntzaile aritzen dira Maider Bilbao pianoan eta Gerardo Rifón organoan.
Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioko Areto Nagusian aurkeztu zen, 2010eko ekainaren 25ean.



Neskatxena

2005eko abenduan **Ziortzako** (Bizkaian) **Kolegiatan** grabatua.

Tío Pete estudioekin batera ekoitzi zelarik, taldeak 2004 eta 2005 bitartean **a cappella abestutako piezen sorta** anitz bat biltzen du, besteak beste M. Duruflé, G. Holst, A. Alcaraz eta P. Sorozabalen lanekin osatua..

04
Sariak
20 urte sariz sari

2016. **TOLOSAko 48. NAZIOARTEKO ABESBATZA LEHIAKETA**
Lehen saria euskal abesti baten interpretazio onenari modalitatean
Hirugarren saria ganbera abesbatzak - folklore modalitatean
Hirugarren saria talde koralak - musika sakroa modalitatean
Hirugarren saria talde koralak - musika profanoa modalitatean

2016. **EJEA DE LOS CABALLEROSeko (Zaragoza) XLV. ABESBATZA LEHIAKETA**
Lehen saria abesbatza helduen kategorian

2014. **CANTONIGRÒSeko (Bartzelona) XXXII.NAZIOARTEKO MUSIKA LEHIAKETA**
Lehen saria emakumeen abesbatzen modalitatean
Lehen saria folklore modalitatean

2013. **AREZZOko (Italia) 61. GUIDO D´AREZZO NAZIOARTEKO LEHIAKETA**
Lehen saria programa historikoaren (XVI. mendea) modalitatean
Bigarren saria talde koralen modalitatean
Hirugarren saria ahots berdinen modalitatean

2010. **II. A CAPELLA ESTATUKO ABESBATZEN TXAPELKETA, Berriobeiti (Nafarroa)**
A Capella saria, txapelketa abesbatza onenari
Lehen saria polifonia modalitatean
Lehen saria folklore modalitatean
Publikoaren sari berezia
Jatorrizko eskualdeko lan baten interpretazio onenaren sari berezia, Albert Alcarazen *Laminak* lanari.
Zuzendari onenaren sari berezia Basilio Astulezentzat

2009. **TOURSeko (FRANTZIA) 38. FLORILÈGE VOCAL LEHIAKETA**
Lehen saria ahots berdinen modalitatean
Bigarren saria programa askeko modalitatean
Lan sortu berri onenaren sari berezia, Filipinetako John August Pamintuan-en *Oremus* lanari
Zuzendari onenaren sari berezia Basilio Astulezentzat

Ia hogei urteko ibilbidean, Vocalia Taldeak munduko abesbatza lehiaketa garrantzitsuenetako batzuetan hartu izan du parte, eta sari ugari irabazi ditu horietan guztietan.

2007. **TORREVIEJAko 54. NAZIOARTEKO HABANERA ETA POLIFONIA LEHIAKETA**
"*Ciudad de Torrevieja*" sari berezia

2006. **TOLOSAKO NAZIOARTEKO 38. LEHIAKETA, Gipuzkoa**
Lehen saria polifonia modalitatean
Bigarren saria folklore modalitatean

2006. **CORKeko (IRLANDA) 52. NAZIOARTEKO LEHIAKETA**
Publikoaren sari berezia

2005. **AREZZOko (ITALIA) 61. "GUIDO D´AREZZO" NAZIOARTEKO LEHIAKETA**
Lehen saria ahots berdinen modalitatean
Lehiaketako abesbatza onenaren lehen sari absolutua

2003. **MAASMECHELENgo, (BELGIKA) 5. NAZIOARTEKO LEHIAKETA**
Lehen saria ahots berdinen modalitatean
Lehiaketako abesbatza onenaren lehen sari absolutua

2002. **TOLOSAko 34. NAZIOARTEKO ABESBATZA LEHIAKETA, Gipuzkoa**
Lehen saria polifonia modalitatean
Bigarren saria folklore modalitatean
Euskal lan baten interpretaziorik onenaren sari berezia

2001. **KANTU KORALEKO III. SARI NAZIONAL NAGUSIA, GRIÑÓNen (Madril)**
Lehiaketako abesbatza onenaren lehen sari absolutua

2000. **ZUMARRAGAko 2. ANTIGUA ABESBATZAK LEHIAKETA NAZIONALA, Gipuzkoa**
Lehen saria ahots berdinen modalitatean
Lehiaketako abesbatza onenaren lehen sari absolutua

05
Estreinaldiak
Konpromisoa musika molde be

John Pamintuan | Filipinas

OREMUS
Egileari 2008an agindutako lana, 2009an Tourseko 38. Florilège Vocal lehiaketan lan sortu berri onenaren saria irabazia. Maria Mater diskoan dago.

Tone Bianca Dahl | Noruega

BIRJINA MAITE
Gabon-abestia, 2008an agindua.

Dante Andreo | Argentina

MAGNIFICAT
Vocalia Taldearentzat 2007an idatzitako lana, urte horretan bertan Zamudion (Bizkaia) estreinatua.

AVE REGINA CAELORUM
Vocalia Taldearentzat 2007an idatzitako lana. 2009an Tourseko 38. Florilège Vocal lehiaketarako programara eraman zen, eta Maria Mater diskoan dago.

DOLOROSA ET LACRIMABILI
Vocalia Taldearentzat 2007an idatzitako lana.

Xabier Sarasola | Euskadi

AGUR MARIA
Emakumeen abesbatza eta organorako lana, 2009an agindua. Leioan (Bizkaia) estreinatu zen 2010eko martxoan, eta Maria Mater diskoan dago.

MENDIAN GORA
Vocaliarentzat 2003an idatzitako lana, urte berean Errenteriako (Gipuzkoa) Musikasten estreinatua.

rriekin

Vocalia Taldearen lehentasunetako bat taldearentzat propio idatzitako lanen sormenarekiko konpromisoa da. Vocaliak Euskal Herriko eta nazioarteko egileen abesbatzarako lanak agintzen eta estreinatzen ditu aldian behin, sormen-prozesua eta konpositorearekiko komunikazio zuzena aberastasun-iturri zaizkiolarik.

Javier Busto | Euskadi

MEMORARE
Emakumeen abesbatza bikoitzerako lana, a acapella abestekoa, 2008an agindua. Leioan (Bizkaia) estreinatu zen 2010eko martxoan, eta Maria Mater diskoan dago.

UREPEL DOINUA
Vocalia Taldearentzat 2006an idatzitako lana, Gasteizen *Kanta Cantemus Koru*arekin batera estreinatua.

Eva Ugalde | Euskadi

NEGUAN
2006an agindutako lana, Gasteizen urte berean estreinatua, eta Cork eta Arezzoko nazioarteko lehiaketetarako programetara eramana.

Albert Alcaraz | Alicante

PRIÈRE
Emakumeen abesbatza bikoitzerako lana, a cappella abestekoa, 2005ean egileari agindua. Arezzo eta Tolosako 2006ko lehiaketetarako programetan sartu ostean, *Neskatxena* diskoan jaso zen.

David Azurza | Euskadi

OIHU HAU
Abesbatza eta perkusiorako lana, egileari 2001ean agindua. Tolosako 2002ko egitarauan sartu zelarik, euskal lan baten interpretaziorik onenaren saria irabazi zuen.

Azken
estreinaldiak

Ko Matsushita | Japón

PUERI HEBRAEORUM
Emakumeen abesbatzarako lana, a cappella abestekoa, 2018an egileari agindua. Vocalia Taldeak 2018ko ekainaren 3an Gasteizko Salestarren komentuan emandako kontzertua estreinatu zen.

Josep Vila i Casañas | Catalunya

L´AFFAIR SOFIA
Emakumeen abesbatza, piano era perkusiorako lana, egileak 2018an Vocalia Taldearentzat idatzia, Els Amics de les Arts taldearen izen bereko abestian oinarrituta. Vocalia Taldeak 2018ko ekainaren 3an Gasteizko Salestarren komentuan emandako kontzertua estreinatu zen.

Alessandro Cadario | Italia

LAU TEILATU
Emakumeen abesbatzarako lana, a cappella abestekoa, Vocalia Taldeak Tolosako 48. Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan (2016) abesteko egileari agindua.

Marten Jansson | Suecia

SALVE REGINA
Emakumeen abesbatza bikoitzerako lana, a cappella abestekoa, 2018an egileari agindua. Estreinatzeko dago.

Michael Ostrzyga | Austria

AVE GENEROSA
Emakumeen abesbatzarako lana, a cappella abestekoa, 2018an egileari agindua. Estreinatzeko dago.



Vocalia taldea

Kontaktua

www.vocaliataldea.com

info@vocaliataldea.com

#CanaldeVocaliaTaldea

#Vocaliataldea

@Vocaliataldea

06

Programa
In mulieribus

Emakumeek

eta emakumeentzat
idatzitako

Musika sakratua

Egitaraua
In mulieribus

VOCALIA TALDEA, emakume abesbatza
BASILIO ASTULEZ, zuzendaria
CRISTINA SALDÍAS, pianoa
MERTXE FERNÁNDEZ DE BASTIDA, akordeoia
ANDER LEKUE, perkusioa

Cecilia McDowall, Inglaterra 1951	**AVE MARIA**
Sarah Quartel, Canadá 1980	**SANCTUM** Requiem Aeternam Kyrie Agnus Dei Lux Aeterna
Eva Ugalde, Euskadi 1973	**STABAT MATER***
Laura Jēkabsone, Letonia 1985	**FOLK MASS** Kyrie Gloria Gratias Agimus Tibi Credo Sanctus Benedictus Agnus Dei

* Proiekurako agindutako musika-lana, erabateko estreinaldia.

Emakumeek eta emakumeentzat idatzitako musika ***sakra***

Cecilia McDowall

Programa, **Cecilia McDowall** (Londres, 1951) emakume konposagilearen ***Ave Maria*** obrarekin hasten da. 2004.urtean *Canterbury Chamber Choir*-ek Kent konderrian estreinatutako ***Three Latin Motets*** obrako bigarrena eta barnekoena dugu berau. Hiru ahots berdinentzako idatzitako motete delikatu hau, Ama Birjinari egindako erregu otoitz bat da. Hasiera xehe baten ostean, disonantzi ugari eta esekitze harmoniko ugarirekin, ingurune izugarri garden eta adierazgarria sortuz garatzen da.

Cecilia McDowall begirune handiz jarraitua izan da nazioarteko abesbatza eremuan bere konposizio aberats eta koloretsuengatik. Bere musikak, batzuetan Herbert Howells edo Gerald Finzi-ren musikarekin alderatuak, ahots hutsak erabiliz, kolore aldakor espektro zabala sortzeko trebetasuna erakusten du.

McDowall-ek Edinburgo eta Londresko unibertsitateetan ikasi zuen eta *Trinity College of Music*-eko ikasle bezala saritua izan zen. Estilo sakon eta pertsonala dauka, entzuleriari, instrumentu jotzaileei eta abeslariei zuzenean hitz egiten diena. Bere obra esanguratsuenek linea melodiko arinak, harmonia disonante eta oparotasun erritmikoak batzen dituzte. Bere musika mundu mailako festibal ugaritan taularatua izateaz gain, hainbat koru garrantzitsuk agindutakoa eta abestutakoa izan da, hala nola, *BBC Singers*-ek. Laudorio ugari jaso izan ditu eta lau aldiz izan da *British Composer Awards*-erako hautatua.

Oxford University Press-ek argitaratutako abesbatzentzako obrekin osotutako New Horizons musika sortaren barruan, honako hauek aurki daitezke: ***Three Latin Motets***: ***Ave Regina, Ave Maria y Regina Caeli, Christus Natus Est*** gabonetako kantata oparoa, ***Ave Maris Stella*** bakearenn motetea eta ***Magnificat***. McDowallen obrak erregulartasunez entzuten dira BBC Radio-n eta sarritan izan dira grabatuak. Estatu Batuetako *Phoenix Chorale* abesbatza entzutetsuak bere ***Three Latin Motets*** grabatu zituen eta grabazio honek 2010eko Grammy sari bat lortzeaz gain, album klasiko onena izateko izendatua ere izan zen. 2018an, *Canterbury Chamber Choir* eta *Rachel Nicholls* sopranoak, *Suton Epoch* sigilupean diska berri bat atera zuten. Ceciliak gaur egun *Dilwich Collegek*-eko konposagile lanetan diardu.

Programa
In mulieribus

Sarah Quartel

***Sanctum*, Sarah Quartel-**en (Canada 1980) lau mugimendutako obra liluragarria, Requiem-aren zatietan oinarritutakoa eta Canadako mendebaldeko kostako paisaian inspìratutako obra da. Bere parteetako bakoitzak, Vancouver irlako ingurune naturalaren aspektu bat deskribatzen du: ura, mendiak, haizea eta zerua. Ingurugiro hau, gune mistikoa eta arima sendatzekoa dela ulertuz.

Requiem Aeternam, Kyrie, Agnus Dei eta ***Lux Aeterna***-z osatutako ***Sanctum*** hau, emakumezko lau ahotsetara a capella abesteko idatzia dago. Lehenengo eta hirugarren ataletan, descant edo talde bakarlari batek parte hartzen du. Bertan erabilitako egiturak, homofonikoak dira batik bat, noiz edo noiz, ahotsak bikoteka elkar imitatzen, atal orekatuak tartekatuz. Sanctum-en hizkuntza harmonikoa aberatsa eta landua da, konposagilearen idazkera atmosferiko ezaguna, atal dramatikoago eta kontrastatuagoekin era bikainean bateratuz.

Sanctum, Requiem Aeternam batekin hasten da, betiko atsedenaren ideia, Canadako amaigabeko egun gris eta euritsuekin alderatuz. Hau lortzeko, kontralto talde batek *ad libitum* bat egiten du fa nota batean, eta hauen gainean sortzen eta eraikitzen dira sopranoek eta mezzosopranoek iradokitzen dituzten melodia delikatuak. ***Kyrie***, egundokoa da, egonkorra, arkaikoa, idazkera zabal eta sendokoa, Canadako mendebaldeko mendien handitasuna gogora ekartzen diguna. *Forte* ugari daude eta bere egitura ere egonkorra eta klasikoa da, aurretik agertutako tema berriro agertzen delarik. Hirugarren atalak, ***Agnus Dei***-k, haizeari eskainitakoak, kontraste nabari bat aurkezten digu. Haize boladak gogorazten dituen dinamika aberasdun atal honek, intentsitate handiko momentuak dituen arren, testura koral homofoniko honen gainetik hegan bailebilen soprano solo arin eta urruneko bat azaltzen da. Bukaeran, obra nor bere baitaratu egiten da. Forma koral trinko eta egonkorra duen ***Lux Aeterna***-k melodia xume eta edertasun eta lirismo handiko armonia erakusten du.

Sara Quartel, bere abesbatzetarako idazkera fresko eta aberatsagatik da ezaguna. Bere musika, batik bat Ipar Amerikako eta Canadako abesbatzek kantatzen duten arren, gero eta ezagunagoa egiten ari da Europa mailan. 2015ean, American Choral Directos Association-ek (ACDA) izaten duen bi urtez behingo konbentzio batean, Bob Chilcott-en zuzendaritzapean, bere obra *Wide Open Espaces* estreinatu zen. 2017an, Snow Angel izeneko bere suite koral ezaguna, *National Children's Chorus of the Unted States of America*-k taularatu zuen.

Egitarauaren erdialdealdean, gure proposamen musikalean zalantzarik gabe bereziena den pieza hau dago. Aurten, 2019an, Vocalia Taldeak, **Eva Ugalde** (Donostia 1973) konposatzaileari eskatutako lana da.

In Mulieribus diseinatzerakoan, batik bat egitarau honentzako sortutako lan bat sartzea pentsatu genuen. Vocalia Taldeak aspaldiko usadioa du emakumeen abesbatzetarako sortutako lanen sustatzaile gisa. Kasu honetan garbi genuen Eva Ugalderekin elkarlana egin nahi genuela, modu horretan egitauaren bitxitasuna eta interesa indartuz.

Evarekin izandako elkarrizketetan, bat gentozan ***Stabat Mater*** laneko textuak alde bientzat zuen garrantzian eta interesan. Gordintasun, atsekabe eta dramatismo handiko egoera bat, non erlijioztasuna, amaren maitasuna eta seme baten heriotzak dakarren min deskribaezina korapilatzen diren. Lan honetan, Giambattista Pergolesi konposatzaile barrokoaren izen bereko obraren itzala somatzen da. Bertan, soprano eta altoen ahotsek, dramatismo eta samintasunez beteriko elkarrizketa bat mantentzen dute, disonantziak eta talka armonikoak bilatuz.

Evak, konposizio honetan, lehentasuna ematen die dramatismo horri eta bakarlariek koral alderdiekin duten txandaketari, Pergolesiren obran gertatzen den bezala.
Instrumentazioari aipamen berezia egin behar zaio, pianoak bait du zeregin garrantzitsuena. Eva Ugaldek, Rossiniren *Petite Messe Solennelle* ezaguna dakarkigu gogora, piano eta armoniorako idatzia, azken hau eskusoinuak ordezkatuko duelarik. Modu honetan, musikatresnetan ere, oso interesgarriak diren timbreak eta elkarrizketak batzen dira.

Konposatzilea, are gehiago murgiltzen da lan honen sortzean, *Oceano* olerkia idazten duenean, eta bere *Stabat Mater*ren sartuz, amatasun errukiaren narrazioa apurtzen duenean. *Oceano*k seme-alabei buruz, apurtezinezko hariei buruz eta isuritako malkoz beteriko itsasoei buruz hitzegiten digu. Baina batez ere, izugarrizko maitasunari buruz hitzegiten du, itsasoa bezain amaigabea eta sekulakoa den maitasuna.

Abesbatz munduan esperientzi handiko musikagile, irakasle eta abeslaria, Eva Ugaldek oso modu berezian eta ezagut daitezkeen joku erritmiko eta konpas isokronoak nahasten ditu, ahotsen trataera erabat leun eta interesgarriarekin. Bere lanak sarritan abesten dira mundu guztian, eta *Miserere,* Ave Maris Stella edo *Dizdizka Zeruan* bezalako musika lanak, kontinente guztietako egitarauetan agertzen dira sarritan.

Eva Ugalde

> **Musika, hizkuntz unibertsala da, erraza, etnia edo sineskera erlijioso zein politikoak ardurarik ez diola. Musika lan hau idatzi nuenean, gure munduko gizakian pentsatzen nuen, aldi berean, lurreko eta zeruko izatearen amaigabeko bere anbibalentzian"**
>
> **Laura Jēkabsoneren,** musika eta bere ***Folk Mass***-i buruz egindako hausnarketa

Laura Jēkabsone

Gure ekitaldiari amaiera emateko, **Laura Jekabsone**ren (Letonia, 1985) ***Folk Mass*** lana, erlijio-musika eta musika profanoa, landua eta herrikoiaren nahasketa nabarmenarekin; musikagile honen lanetan erraz ezagutzen da dualtasuna. Hedadura handiko lana da, eta eskaera bokal zorrotzarekin. Sopranoentzako hiru ahots, eta altoentzako beste hiru ahotsetarako, oso tesitura zabala barne hartzen du, baxuak eta agudoak muturreraino eramanez. Musika gardena, arina eta entzuteko erraza da, nahiz eta oso konplexua eta zorrotza interpretatzaileentzat.

Folk Massen egiturak, latinezko mezaren sei atal ordinarioak errespetatzen ditu, *Kredoa* eta *Gratias Agimus Tibi* barnean sartuz. Atal guztiek aurkezten dituzte musika-doinu xumeak; konposizioa, ahots ezberdinetarako harmonizatzen da, erdi aroko musikatik, jazz-bokala, barbershop edo close harmony musika motetara. Musika lanak, maisutasunez orekatzen ditu tempi ezberdinak, oso landuak diren garapenekin, anitza eta aberatsa bere orokortasunean. Egileak, bokalidade ezberdinak erabiltzen ditu , impostazio lirikoan eta perkusio txikiko musika tresnak gehitzen dituelarik (danborra, klabeak, triangelua, krotaloak...)

Laura Jekabsone, musikagile izateaz gain, zuzendari artistikoa da, oso ospetsua den *Latvian Voices* emakumeen seikote bokalean. Kantari profesionala eta irakaslea. Hezkuntza Musikalean graduatu zen, Letoniako Jazep Vitols Musika Akademian. Esperientzi handia eta onarpena jaso ditu urte askotan eman dituen hainbat ikastaroetan: tailerrak, mintegiak eta abesbatzetarako konposizio lehiaketak. Bera da Latvian Voices taldeko obra gehienen sortzaile eta konpontzailea. Honez gain, hainbat talde europear zein amerikarrek abesten dituzte bere musika lanak maiztasunez.

Laura, Maska taldeko zuzendari laguntzailea eta irakasle bokala da 2006tik; Letoniako abesbatz ezagunenetariko eta sarituenetariko bat da. Letoniar *kokle* herri-musika tresnarako lehen sinfonia idatzi du; *Musica Baltica* argitaretxeak argitaratu eta zabaltzen du.



Vocalia Taldea

In mulieribus